



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA HEZKUNTZA
ADMINISTRAZIO SAILA
Euskal Autonomia Erkidegoa
Fundazioen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Fundaciones del País Vasco

eta jatorrizko, honetan jasota dagoen guztiaz,
dokumentua bera idatzita dagoela bederatzi foliotan,
N motakoak, zenbakiak N 3021558A eta hurrengo
zortziak, nik Notario honek, fede damait.-----

Jarraian agertzen dira agertzaileen sinadurak,
notario eskueslearen zeinua, sinadura eta errubrika,
eta notariotzaren zigilua.-----

----- AGIRI ERANTSIAK -----

HAMAIKA FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua. Sorrera, izena eta iraupena.-----

"HAMAIKA FUNDAZIOA" izenarekin, izaera pribatu
eta iraupen mugagabeko fundazioa sortzen da.-----

2. Artikulua. Araubidea, nortasuna eta gaitasun
juridikoa.-----

Fundazioak nortasun juridiko propio eta
independentea du, eta gaitasun juridiko eta
jarduteko gaitasun osoak izango ditu; gaitasun
horien muga bakarrak izango dira fundatzaileek
fundazioaren sortze-egintzan azaldutakoak, estatutu
hauetan eta aplikatu dakizkiokeen lege-xedapenetan
aipatutakoak, eta, bereziki, Euskal Herriko

Foru-esteka



N 3351425 A



ELISKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Euskal Autonomia Erkidegoa
Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACION PUBLICA
Registro de Fundaciones del País Vasco

Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legean ezarritakoak.-----

3. Artikulua. Fundazioaren helburuak betetzea.--

Fundazioaren Patronatuari dagokio fundazio honen helburuak eta hauei dagokien guztia betetzea, aurreko artikuluan aipatutako mugen barruan.-----

4. Artikulua. Lurralde-eremua.-----

Fundazioaren jarduera Euskal Herrian gauzatuko da nagusiki.-----

5. Artikulua. Egoitza.-----

"HAMAIKA FUNDAZIOA"ren egoitza Andoainen, Martin Ugalde Kultur Parkea, (Gipuzkoa) dago; dena den, Patronatu Zuzentzaileak berori aldatzeko gaitasuna izango du. Fundazioa, Patronatuak hala erabakiz gero, bestelako herrietan ere kokatu ahal izango da, bere lana garatu ahal izateko etxe eta lan-guneak sortuz.-----

6. Artikulua. Helburuak.-----

Fundazioaren xedea da, komunikazio eta informazio gizartera herritarren irismen ahalmenak



EUSKO LAURLARITZA
GORIFENO VASCO

JUSTIZIA ETA HERRI-
ADMINISTRAZIO SAILA
Euskal Autonomia Erkidegoko
Fundazioen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Fundaciones del País Vasco

garatzea, hauen tekno prestakuntza eta kultur formakuntza bultzatuz, eskualde mailako garapena landuz eta euskarazko edukiak sortuz bereziki ikus-entzunezko, interaktibitate eta digitalidade alorretan. Horretarako garrantzia berezia eskainiko dio berrikuntzari (inobazioa) eta besteren artean teknologia garapen, azterketa eta ikerketa iharduerak sustatuko ditu sortze, prestatze, iragartze eta sustatze lanekin batera.-----

7. Artikulua. Xedearen garapena.-----

Fundazioaren xedeari dagozkion jarduerak egoki deritzon eran burutu ahal izango ditu Fundazioak, beste zenbait entitate edo erakundetan parte hartuz ere; horretarako muga bakarrak izango dira legean ezarritakoak eta estatutu hauetan jasotako aginduek ondoriozta ditzaketanak.-----

Horrela, Fundazioak bere helburuen garapena honako era hauetan burutu ahal izango du, legeak ezartzen dituen mugen barruan betiere:-----

a) Fundazioak berak zuzenean, bere organoen bidez, Patronatuak aldizka prestatu eta onartu behar duen jarduera-egitasmoa gauzatzuz.-----

b) Zeharka, beste zenbait entitate, elkarte eta erakundetan parte hartuz.-----



N 3351424 A



c) Legeak baimentzen dituen gainerako fundazio, elkarte, kooperatiba, sozietate edo beste edozein izaeratako erakundeak sortuz edo sortzen lagunduz.--

d) Fundazioaren helburuak betetzeko baliagarri izan daitezkeen gainerako erakunde edo pertsona juridiko edo fisikoen jardueretan parte hartuz, bereziki Fundazioaren ingurunekoak direnean.-----

e) Xede hauek lortzeko asmoz, Fundazioak laguntza ekonomikoa eta aholkularitza eta lankidetzak profesionala eskaini edo eman ahal izango ditu. Era berean, bere helburuak bete ahal izateko, legatu, dohaintza eta subentzioak ematea sustatuko du.-----

II. KAPITULUA. ONDAREA

8. Artikulua. Fundazioaren ondarea.-----

1. Fundazioaren haserako ondarea HOGEITAMAR MILA (30.000 €) eurok osatzen dute, hain zuzen, HAMAIKA TELEBISTA HEDATZEKO TALDEA, S.A.-k egiten duen ekarpena. Sortze-eskrituran jasotzen da hasierako



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Euskal Autonomia Erkidegoko
Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Fundaciones del País Vasco

zuzkidura.-----

Fundazioaren ondarea indarrean dagoen legeriak baimentzen dituen era guztietako ondasun eta eskubideez izango da.-----

2. Haserako ondareaz gain, ondorengoek osatzen dute Fundazioaren ondarea:-----

a) Kide sortzaileak bere borondatez egin nahi dituen ekarpenak.-----

b) Etorkizunean Fundazioak entitate publiko edo pribatutatik edo partikularrengandik eskura ditzakeen kostu bidezko edo borondatezko beste edozein ondasun edo eskubidek, bereziki subentzio, dohaintza edo legatuek. Dohaintza, legatu eta herentzien onarpena Babesletzari jakinarazi beharko zaio.-----

c) Fundazioak egindako jarduerak eta ondarearen fruitu edo errentek, produktu edo irabaziek eta eman ditzakeen zerbitzuengatik ordainketek, betiere indarrean dagoen legeriaren arabera.-----

9. Artikulua. Ondarearen zaintza.-----

Fundazioaren ondarea zaintzeko ondorengoak izan beharko dira kontuan:-----

1. Sortze-ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak Fundazioaren izenean egongo dira, eta

Foru Saila

Tiraketa



N 3351423 A



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Euskal Autonomia Erkidegoko
Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Fundaciones del País Vasco

bere inbentarioan jasoko dira. Gainera, eta hala dagokienean, bakoitzari dagokion Erregistroan inskribatuko dira.-----

2. Ondasun higiezinak eta/edo eskubide errealak Jabetza Erregistroan inskribatuko dira Fundazioaren izenean. Inskribagarriak diren gainerako ondasunak, dagozkien erregistroetan inskribatuko dira.-----

3. Balioak Patronatuak izendatutako finantza erakundeetan gordailatuko dira. Gainerako ondasun higigarri, jabetza-titulu, gordailu-egiaztagiri eta jabari, edukitza, usaera, gozamen edo Fundazioaren beste edonolako eskubide frogatzen duen edozein dokumenturen zaintza Patronatuaren edo honek eskuordetutako pertsonaren ardura da.-----

4. Fundazioaren ondasun eta eskubide guztiak Patronatuaren idazkariaren ardurapeko erregistro-liburuan jasoko dira.-----

5. 12/1994 Legearen, ekainaren 17koaren, 22. Artikuluak biltzen dituen egintza guztiak Fundazio Erregistroan jasoko dira; hala dagokienean,



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Euskal Autonomia Erkidegoko
Fundazioen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACION PÚBLICA
Registro de Fundaciones del País Vasco

bakoitzari dagokion Erregistroan egindako
inskripzioa ere egin ahal izango da.-----

10. Artikulua. Fundazioaren ondarearen inguruko
arauak.-----

1. Fundazioak jaso ditzakeen dohaintza, legatu
eta herentziak, emailearen zehaztapenen arabera,
Fundazioaren ondarea gehitzeko edo zuzenean bere
helburuak betetzeko erabiliko dira. Emaileak
zehaztapenik ez badu ematen, Patronatuak, bere
irizpideen arabera, erabakiko du.-----

2. Ondasun eta errentei dagokienean, hauek
Fundazioaren helburuak lortzeko erabiliko dira modu
zuzenean, eta Patronatuak erabakiko du, dituen
helburu diferenteen artean haien aukeraketa eta
banaketa.-----

3. Fundazioak, une oroko egoera ekonomikoaren
arabera, bere ondarea osatzen duten inbertsiotan,
hauek bere horretan mantentzeko edo bere balio
errealak ez galtzeko, beharrezko aldaketa edo
moldaketak egin ditzake.-----

III. KAPITULUA. GOBERNU, ORDEZKAPEN ETA
ADMINISTRAZIOA ORGANOA. AHOLKULARITZA BATZORDEA.
KOLABORATZAILEAK



N 3351422 A



11. Artikulua. Patronatua.-----

1. Fundazioaren ordezkapena, gobernu eta administrazioa Patronatuari dagozkio erabat, eta aplikatu dakizkiokeen indarreko xedapenetan ezarritako mugak soilik izango ditu. Fundazioaren jardura eraginkortasunez egiteko zuzenbidez legozkiokeen ahalmen eta botere guztiak erabiliko ditu Patronatuak, eta, besteak beste, Estatutu hauek interpretatzeko.-----

2. Patronatuaren, edo honek delegatu dezakeen organo edo pertsonen erabakiak, modu askean eta independentean hartuko dira, eta hauen ekintzak errekurritu ezinezkoak eta definitiboak dira, legeak eta Estatutu hauek ezarritako arauak salbu.-----

3. Patronatuko kideak HAMAIKA TELEBISTA HEDATZEKO TALDEA, S.A.ko Administrazio Kontseiluko kideak izango dira.-----

4. Hauek gain, HAMAIKA TELEBISTA HEDATZEKO TALDEA, S.A.ko Administrazio Kontseiluak,



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Euskal Autonomia Erkidegoko
Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA
Registro de Fundaciones del País Vasco

~~Administrazio~~ Kontseiluko kide ez diren, Patronatuko
hiru kide aukeratu eta kargugabetu ahal izango ditu.

5. Horietaz gain, Patronatuko bileretan,
Patronatuko kide izan gabe, HAMAIKA TELEBISTA
HEDATZEKO TALDEA, S.A. Administrazio Kontseiluak
gonbidatutako pertsona fisiko eta juridikoak parte
hartu ahal izango dute, ahotsarekin baina bozkarik
gabe.-----

6. Patronatuko kideak musu truk ariko dira beren
karguko lanetan. Nolanahi ere, funtzio horiek
gauzatzean sortutako gastuen zenbatekoa berreskuratu
ahal izango dute, egoki azalduz gero.-----

7. Patronatuko kideak eta aldi berean HAMAIKA
TELEBISTA HEDATZEKO TALDEA, S.Ako Administrazio
Kontseiluko kide direnen kasuan, Patronatuko kide
izango dira, HAMAIKA THT SAKo kontseilari diren
bitartean.-----

Patronatuko beste kideen kasuan, heriotza,
ezgaitasun, desgaitasun, agintaldiaren iraungipen,
kargu uzte, kargutik kentze edo Patronatuaren kide
izateari uzteko beste edozein arrazoi dela kausa
gertatzen direnean HAMAIKA TELEBISTA HEDATZEKO
TALDEA, S.Ako Administrazio Kontseiluak Patronatuko
kide berriak izendatu edo hutsuneak ez betetzea

Foru Salua



N 3351421 A



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Euskal Autonomia Erkidegoko
Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACION PUBLICA
Registro de Fundaciones del Pais Vasco

hauta dezake.-----

12. Artikulua. Patronatu barneko karguak.
Lehendakaria.-----

Patronatuak Lehendakari bat izendatuko du bere kideen artean, eta honen ardurapekoa izango da Patronatuaren bileretarako deia, bere ekimenez edo kideen heren baten eskariz, zabaltzea, baita bertako eztabaidak zuzendu eta akordioak gauzatzea ere.-----

Patronatuko Lehendakariak, organo honetako kide izateagatik dagozkion ahalmenez eta estatutu hauek esleitzen dizkiotenez gain, Fundazioa ordezkatzekoa ere badu, dela Patronatu-Batzordearen eta Fundazioaren beste zenbait organoren erabakien ondorio diren ekitaldi eta kontratuetan, dela gerta litezkeen auzi, espediente, jarduera administratibo, gobernatibo, judizial eta judizioz kanpokoetan, auzi-jartzaile nahiz demandatu gisa edo bestelako edozein izaerarekin, eta Prokuradore zein Abokatuak auzitarako orokorrean ahalduntzeko eskumena ere badu.-----



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Euskal Autonomia Erkidegoko
Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACION PÚBLICA
Registro de Fundaciones del País Vasco

Beti ere, bilera konkretu baterako, Patronatuak
Lehendakariaren ordezkoa izendatu ahal izango du,
Patronatuko bere kideen artean, Lehendakaria kanpoan
edo gaixorik denean bere ordezko izan dadin eta
berak eskatuta lagun diezaion.-----

13. Artikulua. Patronatu barneko karguak.
Idazkaria.-----

Patronatuak bere kideen edo besteren artean,
Idazkari bat izendatuko du. Honen eginkizunak
Fundazioaren lan administratiboen zuzendaritza,
dokumentazioaren zaintza eta bilkuretako Aktak
jasotzea dira. Hauek onartu eta Lehendakariaren
oniritzia jaso ondoren, Akta-liburura transkribatuko
dira.-----

Beti ere, bilera konkretu baterako, Patronatuak
idazkariaren ordezkoa izendatu ahal izango du,
Patronatuko bere kideen artean, idazkaria kanpoan
edo gaixorik denean bere ordezko izan dadin eta
berak eskatuta lagun diezaion.-----

14. Artikulua. Patronatu barneko karguak.
Bokalak.-----

Patronatuko gainontzeko kide guztiak bokalak
izango dira.-----

15. Artikulua. Patronatuaren jardun-arauak.-----



N 3351420 A



1. Lehendakariak egingo ditu bilera-deialdiak, bere erabakiz edo Patronatuko kideen %33ak horrela eskatuz. Deialdia, edozein modu idatzi erabiliaz egingo du eta bilera-data baino hamar egun lehenago gutxienez eta eguneko Gai-Zerrenda eta bilera lekua bertan adieraziz.-----

2. Patronatuaren eraketa baliozkotzat jotzeko, lehenengo deialdian bere kideen erdia gehi bat behar da; bigarren deialdian, berriz, edozein kopuru nahikoa izango da, beti ere hiru kide biltzen badira gutxienez.-----

3. Aurreko paragrafoetan ezarritakoa kontuan hartuta ere, Patronatua deitutzat eta balioz eratutzat joko da bere kide guztiak bertaratu eta bilera egitea aho batez onartzen dutenean.-----

4. Akordioak botoen gehiengoaren bidez erabakiko dira, ondorengo kasuetan izan ezik:-----

a) Estatutuen aldaketei, Fundazioaren fusio edo iraungipenari eta sortzaile-izaerako eskaeren onespenei buruzko akordioetan. Kasu hauetan,



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Euskal Autonomia Erregeko
Fundazioen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACION PUBLICA
Fundaciones del Pais Vasco

~~Batzordeko~~ kideen hiru laurdenen aldeko botoa
beharko da, gutxienez.-----

b) Aldeko botoen bestelako gehiengo edo quorum
bat ezarria duen edozein akordiotan.-----

5. Patronatua urtean bitan bilduko da gutxienez.
Urteko lehen hiruhilekoan nahitaez bilduko da
aurreko ekitaldiko aurrekontu arruntaren eta
balantzearen likidazioari eta urte horretako
jardueren Memoriari onespena emateko.-----


16. Artikulua. Patronatuaren eskuduntzak.-----
Ordezkatzeko, erabakitzeko eta administraziorako
eskuduntzarik zabalena erabiliz, Patronatuak era
guztietako egintza edo zeregin juridikoak egin ahal
izango ditu, legeak ezarritako mugak soilik izanik.-

17. Artikulua. Batzorde betearazlea edo
delegazioa


1. Patronatuak bere kideetako batengan edo
batzuegan delega ditzake bere ahalmen eta botere
guztiak edo hauekoren bat, kontu eta aurrekontuen
onarpena eta Babesletzaren baimena behar duten edo
Fundazioaren gestio arrunta gaingitzen duten
egintzak salbu.-----

2. Aurreko paragrafoan aipatutako mugak kontuan
hartuta, Patronatuak batzorde delegatu edo

Forn Sailua



N 3351419 A



betearazle bat edo gehiago era ditzake, kasu bakoitzerako ahalmenak zehaztuz. Era berean, funtzio eta erantzukizun komun edo solidarioak izango dituzten ahaldun orokor edo berezietarako, kanpoko beste pertsona bat edo batzuk izendatu ahal izango ditu, fisiko zein juridikoak.-----

3. Ordezkeri eta ahaldun orokorren izendapen eta errebokazioak Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko dira, auzitarako direnean salbu.-----

18. Artikulua. Aholku Batzordea

Fundazioak, bere Patronatuaren bidez, iruditzen zaion pertsona fisiko edo juridikoak aukera ditzake Aholku Batzordea osatzeko. Organo hau Patronatuak deituta urtean behin bilduko da gutxienez, eta aholkularitza izaera soila izango du. Aholku Batzordean, eginkizun diren ekimenenen inguruko iritzi eta ekarpenak egingo dituzte bertako kideek, betiere Fundazioaren helburuak betetzeko bidean. Fundazioko Aholku Batzordeko kideek Patronatuak aukeratuak eta erabateko gehiengoz onartuak izango



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Euskal Autonomia Erkidegoko
Fundazioen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACION PUBLICA
Registro de Fundaciones del Pais Vasco

Beharko dute. Fundazioko Aholkularitza
Batzordeko kideek ez dute inolako ekarpen
ekonomikorik egin beharrik izango.-----

19. Artikulua. Laguntzaileak.-----

Fundazioaren helburuak lortzeko jarduera edo
ekarpen baliagarriak eskain ditzaketen pertsona
fisiko eta juridikoak, Fundazioaren Laguntzaile
bihur daitezke.-----

Laguntzaile bihurtzeko eskaerek Patronatuko
kideen hiru laurdenen aldeko botoa beharko dute, eta
Patronatuak erabakiko du egin beharreko ekarpen
ekonomikoa zenbatekoa izango den horrelakorik egin
beharra dagoenean.-----

IV. KAPITULUA. ERREGIMEN EKONOMIKOA

20. Artikulua. Erregimen ekonomikoa.-----

1. Patronatuak, alde batetik, urtero egingo ditu
Fundazioaren egoera ondarezkoa, ekonomikoa eta
finantzarioa jasoko dituzten inbentarioa, egoera-
balantzea eta emaitza kontua, eta bestetik,
Fundazioaren helburua betetzen ari dela azaldu eta
frogatzen duen ekitaldi ekonomikoari dagokion
Memoria. Memoriak finantza taulak eta ondarean eta

Foru Sailra
Tribuna



N 3351418 A



governu edo zuzendaritza-organoetan izandako edozein aldaketa jasoko ditu.-----

2. Horrez gain, Patronatuak ondorengo ekitaldirako gastu eta sarreraren aurrekontu bat prestatuko du urtero, Memoriarekin batera, Babesletzari aurkezteko, indarrean dagoen legeriaren arabera.-----

3. Gastu eta sarrera arruntak jasotzen dituen aurrekontuan Fundazioak edozein kontzepturengatik eskuratzen dituen sarrerak agertuko dira eta sarreraren soberakinak Fundazioaren ondarea handitzeko erabili ahal izango dira.-----

4. Ekitaldian zehar, Patronatuaren Juntak sortzen diren beharretara egokitze beharrezko edo egoki deritzen aldaketak egin ahal izango ditu aurrekontuan.-----

5. Patronatuak ezohiko aurrekontuak prestatuko ditu ezohiko jarduerak egiteko beharrezkoak direnean. Aurrekontu guztiek, arruntek zein ohizkanpokoek, orekatuak izan beharko dute.-----



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Euskal Autonomia Erkidegoko
Fundazioen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTITIA
Y ADMINISTRACION PUBLICA
Fundaciones del Pais Vasco

8
Fundazioaren sorreren erabilera 12/1994
Legeak, ekainaren 17koak, 30. Artikuluan xedatutako
aurreikuspenen arabera egingo da.-----

7. Ekitaldi ekonomiko bakoitzeko lehen hiru hilabeteetan Patronatuak aurreko ekitaldiko aurrekontu arruntaren likidazioa eta balantzea egingo ditu, eta ekitaldi horretako jardueren eta gestio ekonomikoaren Memoria. Honek Fundazioaren helburua gauzatzeari eta Fundazioaren ondarearen egoerari buruzko ikuspegia lortzeko nahikoa informazio bilduko ditu.-----

V. KAPITULUA. FUNDAZIOAREN XEDEA ETA ONURADUNAK


21. Artikulua. Xedea eta onuradunak.-----

Fundazioaren helburua interes orokorrekoa da eta Fundazioaren onuradun, edozein pertsona natural edo juridiko izan daiteke, inolako diskriminaziorik gabe.-----

Era berean, Fundazioak eskainitako zerbitzuen eta onuradunen kopurua mugatu beharra dagoenean, hauek hautatu eta zehaztea Fundazioaren Patronatuari dagokio, eta ez da atzera egiterik izango erabaki horretan. Horretarako, hautagai bakoitzaren meritu,



N 3351417 A



premia, gaitasun ekonomiko eta aprobetxamendurako aukerak edo beste ezaugarri objektiboak baloratuko ditu.-----

VI. KAPITULUA. ALDAKETA, FUSIOA ETA IRAUNGIPENA

22. Artikulua. Estatutuak aldatzea.-----

1. Patronatuak Estatutu hauek alda ditzake, beti ere sorrerako xedea errespetatuz eta fundatzailearen debekurik ez badago. Aldaketarako akordioa gutxienez bere kideen hiru laurdenen aldeko botoekin hartuko da.-----

2. Fundazioaren sorrera bultzatu zuten zirkunstantzien aldaketa sakona bada, eta Fundazioak ezin badu egokitasunez jokatu, Patronatuak Estatutuak aldatzeko akordioa hartu beharko du, fundatzaileak egoera aldaketa horrek Fundazioaren iraungipena suposatzen duela aurreikusi badu salbu. -

3. Arrazoitutako Estatutuen aldaketa akordioa, eskritura publikoan formalizatuko da eta,



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRATIO SAILA
Euskal Autonomia Erkidegoko
Fundazioen Erregistroa

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA
Y ADMINISTRACION PUBLICA
Registro de Fundaciones del Pais Vasco

~~Babeslaritzaren~~ onarpenarekin Fundazioen
Erregistroan inskribatuko da.-----

23. Artikulua. Fusioa, elkarketa edo federazioa.

1. Patronatuak erabaki dezake, halaber, Fundazioa antzeko xedeak dituzten beste erakunde batekin edo batzuekin batzea edo federatzea, baldin eta horrekin sorrerako xedea behar bezala zainduta gelditu eta fundatzailearen debekurik ez bada. Erabakia hartzeko, beharrezkoa izango da kideen hiru laurdenek horren aldeko botoa ematea.-----

2. Bat-egitearen kasuan, erabakia arrazoitua izango da, eta Babesletzaren onespena izan beharko du indarrean dagoen legeriaren arabera. Akordio eskritura publikoan formalizatuko eta Fundazioen Erregistroan inskribatuko da.-----

24. Artikulua. Iraungipena.-----

1. Fundazioa ondorengo arrazoi hauengatik irauungi daiteke:-----

a) Legezko xedapen baten ondorioz.-----
b) Ebazpen judizial irmoz ondorioz desegiten denean.-----


c) Aurreko artikuluan ezarritakoaren arabera erabakitako fusio prozesu baten ondorioz.-----

d) Fundazioaren baliabideen eskasia edo beste

Foru-Itza



N 3351416 A



JUSTIZIA ETA HERRI
ADMINISTRAZIO SAILA
Euskal Autonomia Erkidegoko
Fundazioen Erregistroa
MINISTERIO DE JUSTICIA
REPUBLICA ESPAÑOLA

edozein arrazoi dela medio, baita Euskal Herriko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legean ezarritako eta Estatutu hauetan jasotzen diren aurreikuspenen arabera, betiere, Patronatuak bere kideen hiru laurdenen aldeko gehiengoarekin horrela erabakitzen badu eta fundatzaileak horretarako baimena ematen badu.-----

2. Kasu honetan, Fundazioa iraungitzeko espediente bat irekiko da, eta bertan honako hauek jasoko dira:-----

- a) Horretarako zioaren azalpen arrazoitua.-----
- b) Fundazioaren balantzea.-----
- c) Jarduera-programa eta Fundazioaren ondarearen edo honen salmentaren ekoizkinen banaketarako proiektua. Aipatutako banaketa edo esleipena Patronatuak erabaki eta egingo du askatasun osoz, ondare horren onuradunak interes orokorreko beste ekintza zein erakunde batzuk izendatuz. Hori izan ezean, legeak aurreikusitakoaren arabera eta antzeko helburuak dituzten eta Fundazioak egiten zituen

